



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.

Programa: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuko idazkaritza teknikoa (010. programa).

2016ko Aurrekonturako helburuak

Idazkaritza Teknikoaren bitartez Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuko kudeaketa administratiboa eta aurrekontu eta kontabilitatearen kontrola bere gain hartzea.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Kontratazio administratiboa: baloratzea kontratueta generoaren ikuspegia sartzea.	Kontratu kop.	60	68	Administrazio klausula berezien orrietan esleipen irizpide bat sartzen da, betiere genero ikuspegia bera kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat bada.

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Egiturak osatzerakoan gizon emakumeen oreka bereziki lantzen dugu.	-	-



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.

Programa: Garraioaren Antolamendu eta Sustapena (100. programa).

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Mugikortasun eta garraioaren alorrean, aurrera egitea gizon eta emakumeen arteko berdintasun kota handiagorantz.
2. Errealitatea hobeto ezagutzea, sexu desberdinekoen artean mugikortasunak sor ditzakeen desberdintasunei buruz eskuartean dugun informazioa gehituz (datu kuantitatibo eta kualitatiboak).
3. Gizon eta emakumeen behar espezifikoak eta eskaerak hobeto ezagutzea, mugikortasun eredu espezifikoek bidez.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Ezagutzea emakumeek eta gizonen nola erabiltzen duten garraibideak.	Bidaiari-kopurua (emakumeak)	13.500.000	15.840.000	Generoaren ikuspegitik, ikus daiteke garraio-moduak erabiltzean badaudela desberdintasun batzuk emakumeen eta gizonen artean. 2011. urteko azken datuen arabera, gizonen artean nagusitasun handiagoa dute ibilgailu pribatuetako joan-etorriek, mugimendu guztien % 46,4, hain zuzen; emakumeen artean, berriz, % 27,8 dira. Halaber adierazi behar da ikusten dela emakumeen mugikortasun-ereduak gehiago zaintzen duela iraunkortasuna.
	Bidaiari-kopurua (gizonak)	6.500.000	8.160.000	
Foru Aldundiaren eskumeneko emakidetan bidaiarien errepide garraioko gaueko autobus zerbitzuak finantzatzeko diru laguntzak ematea.	Enpresen kop.	4	2	Garraio publikoa hobetzeko politika publikoek eragina dute, aisia galetako beharren asetze mailan, arrazoi horiengatik egiten diren joan-etorriak errazten baitituzte, batez ere garraio publikoaren behar handiena duten biztanleengan, eta horien artean daude emakumeak.
Informazio kanpainak egitea.	Kanpainak	1	3	-

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Azterlan berezietan eta ditugun datu estatistikoetan arabera, ondoriozta daiteke emakumeak direla garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak, eta ibilgailu pribatuan estres faktorea eta soilik balio instrumentalak hautematen direla, boterearen edo ospearean balioekin lotzen den gizonaren paradigmen aurrean. Era berean, emakumearen mugikortasun ereduak desberdintasun batzuk ditu gizonarekiko: sendiaren inguruarekin eta gizartearekin lotutako mugikortasuna, garraio publikoa erabiltzeko ordutegi aukera handiagoa, joan-etorri gehiago eta distantzia txikiagoak, eta abar. Bestalde, garraioaren sektore ekonomikoan gizon kopurua izugarria da, emakumeak gutxi batzuk bakarrik baitira, batez ere merkantzien eremuan; hala ere, ikus daiteke lan munduan sartzeko laguntza publikoek hobetu egiten dutela emakumeek sektorean duten parte hartze kuota.		



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.

Programa: Mugikortasuna (110. programa).

2016ko Aurrekonturako helburuak

03. Bizikletaren erabilera sustatzea hiri barruko eta hiri arteko eguneroko garraio bide iraunkor gisa.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
03.2 Bizikleta erabiltzea sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan berdintasuneko klausulak sartzea.	Diru laguntzen kop.	15	3	Azken urteotan gora egin du etengabe foru bizikleta bideen erabilerak. Foru bizikleta bideetako erabileraren inguruan egindako inkestek azaltzen digutenez, erabiltzaileen %74a oinezkoak dira, eta %26a txirindulariak. Azken hauen kopurua poliki-poliki- gora doa.
03.3 Bizikletaren Aholku Kontseilua garatzea.	Ordu kop.	500	500	Oinezkoen artean, gizonaek eta emakumeek nahiko orekatuta daude; txirindularien artean, berriz, emakumeen proportzioa txikia izanda, gero eta handiagoa da. Alde hori azalduko lukeen arrazoiak bat izan liteke gizonaen arteko kirol txirindularitzarako joera handiagoa.

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
--	---------------	------------

Gizonen eta emakumeen bizitza kalitatearen programan duen eragina aztertzeke ikuspegitik, argi dago batez ere eragina duena "mugikortasun egoki bat izateko" ahalmenean. Ondorioz, bidegorrien sarea hobetzeko politika publikoek eragina dute, baita ere, emakumeen eta gizonen lan, hezkuntza, osasun, aisia eta kirol gaietako beharren asetze mailan.



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.

Programa: Pasaialdeako Antolaketa eta Sustapena (200. programa).

2016ko Aurrekonturako helburuak

Programa integral bat garatzea, epe motzean eta ertainean, aukera emango duena hiri espazioak eta hondatutako ekipamenduak birgaitzeko eta lehengoratzeko; Pasaialdeko herritarren beharrei erantzunez lagundu dezaten lurraldearen garapenean eta biztanleen ongizatean, Pasaia arlo ekomikoan, hirigintzakoan, sozialean eta kulturean biziberritzeko xede globalaren barruan.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Generoaren ikuspuntutik aztertzea erabakiek Pasaia udalerria biziberritzearen politikan duten eragina.	Datu bilketa sistematizatzea	1	1	Hiri espazio publikoetan egiten diren esku-hartzeak, espazio irekietan naiz eraikietan, gizon-emakumeen egunoroko bizimoduan eragiten dute, horregatik, bada, genero ikuspuntutik aztertu behar da hiri espazioaren erabilera eta gozamina.
Komunikazio kanpainetan generoaren ikuspegia sartzea.	Kanpaina kop.	1	1	

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
Azpiegituretan egiten den gastuari buruzko politikek oso zeregin garrantzitsua daukate eredia aldatzeko, berdintasunean oinarritutako gizarte baten aldekoa, izan ere, egiten diren azpiegituren arabera, sexu arteko desberdintasuna finkatzen duten rolen egiturazko aldatzea eginga ahal izango da edo ez da egingo.		



2016ko KONTU OROKORRA GENEROAREKIN LOTUTAKO HELBURUEN JARRAIPENA

Departamentua: Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa.

Programa: Lurraldearen Antolaketa esta Sustapen Orokorra (220. programa).

2016ko Aurrekonturako helburuak

1. Aldundiak hirigintzako espedienteak aztertu eta ebazteko duen eskumena betetzearen, departamentuari dagokio espedienteok aztertzea eta, ondoren, ebazteko proposamena organo eskudunari aurkeztea, bultzatuz, ahal den neurrian, datuak eta artxiboa tratatzeko prozedura digitalen erabilera.
2. Datu espazial eta geografikoen azpiegitura amankomun bat eraikitzea eta Aldundi osoaren, gainera erakunde publiko nahiz pribatuen eta, oro har, herritarren eskura jartzea.

A) Adierazle neurgarriekin planteatutako helburuak. Balorazio kuantitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Adierazlea	Adierazle helburuak	Adierazle Betetzea	Balorazioa
Kontratututako proiektuetan berdintasunaren ikuspegia sartzea.	Kontratu kop.	15	16	Administrazio klausula berezien orrietan esleipen irizpide bat sartzen da, betiere genero ikuspegia bera kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat bada.

B) Adierazlerik gabe planteatutako helburuak. Balorazio kualitatiboa

Helburuekin lotuta aurreikusi diren ekintzak	Betetze maila	Balorazioa
--	---------------	------------

B5m.gipuzkoa.eus ataria egunean batez beste 2.520 erabiltzaile desberdintzek erabiltzen dute, baina ez daukagu erabiltzaileen daturik (generoa, adina, prestakuntza eta abar); izan ere, informaziorako sarbidea librea da eta erabiltzeko ez dago alta eman beharrik edo galdetegi bat ere beharrik.